

II - ARABAKO LURRALDE HISTORIKOAREN TOKI ADMINISTRAZIOA

AGURAINGO UDALA

Lurjabeen baimenak, "Agurain eta Zuhatzu Donemiliaga" (matrikula zenbakia VI-10160) ehiza-barrutian sartuta daudenenak

Aguraingo udalak, Zuhatzu Donemiliagako administrazio batzarrarekin batera, erabaki du berritzea "Agurain eta Zuhatzu Donemiliaga" (matrikula zenbakia VI-10160) ehiza-barrutia, mugaketa berriarekin.

Kontuan hartuta ehiza-barrutian dauden lur publiko eta pribatuak, eta bat etorritik martxoaren 17ko 2/2011 Legeak, Euskadiko ehizari buruzkoak, 21. Artikuluan xedatutakoarekin, erakunde bakoitza barrutian sartuta dauden lurren jabeen baimenak biltzen ari da. Ulertuko da jabeek isilbidezko baimena ematen diotela udalari beren lurak ehiza-barrutian sartzeko, baldin eta ez badute idatziz kontrakoa adierazten 15 eguneko epean, iragarki hau ALHAOn argitaratu eta hurrengo egunetik aurrera.

Guztiak jakin dezaten eta dagozkion ondorioak izan ditzan argitaratzen da.

Agurain, 2023ko ekainaren 14a

Jarduneko alkatea

ERNESTO SAINZ LANCHARES